



KALAPUTXI

Mutrikuko herri-aldizkaria
2026ko uztaila - 273 zkia.



Iñaki Agirregomezkorta
Arreitunandia «Tolon»

Bizitzan gehienak momentu onak dira

SUAREN AURKAKO TALDEA • EZOHIKO ERREGULARIZAZIO PROZESUA GUREAN
GARIA: GUZTIEN AHOTAN ZEBILEN ZEREALA
ETXERATZE BIDEA ERRAZTEKO ELKARTEA • SARE HERRITARRA



Ziortza

Eskerrik asko
zuen konfiantzagatik

ondo pasatu
Malen Taiak

📞 943945308 📍 Jose Maria Alcibar 10 📷 📱 Ziortza_ileapalndegia

apain
Estetika Fisioterapia

LOKATZAREN ERRITUALA,
“C” BITAMINAREN ERRITUALA...
BESTEAK BESTE

ZURE AZALAK BEHAR DUENA,
APAINEN DAUKAGU

HONDARTZAN GOZATU ETA APAINEN GOXATU

Telefonoak

Osasuna

OSASUN AHOLKURAKO TEL. ... 900 20 30 50

Larrialdiak.....	943 46 11 11
Anbulatorioa.....	943 60 43 00
DYA zentrala.....	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00
Alzheimer elkarteak	943 29 71 18

Botikak

Lasuen-Elezgarai	943 19 50 26 / 626 61 13 92
Lon Apraiz	943 60 32 50 / 630 05 50 97
Amaia Zalduegi	669 26 22 01
Hiart Burgoa	667 33 88 90
Elortza Elortza (Eibar)	943 20 61 00

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea	943 60 32 44
Udaltzaingoa	943 60 70 48 / 679 16 25 00
Gizarte Ongizatea	943 19 50 81
Anai Arte bulegoa	943 60 42 47
Anai Arte taberna	943 60 34 10
Mikel Deuna Zaharren Egoitza	943 60 38 71
Eguneko Zentroa	943 60 38 71
Turismo Bulegoa	943 60 33 78
Bake epaitegia	943 60 70 49
Kiroldegia	943 60 31 75
Liburutegia	943 60 41 82
Miruaiz pilotalekua	943 60 41 91
Ur Kontsultazioa	943 00 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak	943 70 07 99
Posta zerbitzua	943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola	943 89 91 52
San Miguel Ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko BHI Institutua	943 89 92 24
Kardala Akuakultura Institutua	943 60 71 37
Udal Euskaltegia	943 60 30 94
Udal Musika Eskola	943 60 37 80
Haurreskola publikoa	943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

JOSEBA taxia	688 68 10 13
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa Autobusak	900 12 14 00
Bizkaibus	902 22 22 65
EuskoTren	944 333 333
Loiuko Aireportua	905 50 50 05

Bestelakoak

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN

AURREKO TEL. 900 840 111

Iritzixa

Ibon Aginaga Imatz

ZEZENEN PARE

Ez naiz sekula zezenzalea izan. Gehienek errukia eman izan didate gainera.

Larrean lasai asko bizi ziren, nahi zutenean han-hemenka beraien belarra janez, inguruan hesiak jarri zizkioten arte. Ordutik ezin sekula lehen zirenak (eurak) izan. Urratsak mugatu zizkieten; askatasuna eten. Kanpotik ezarritako mugak gainditzen edo hesiotatik ateratzen saiatzen zirenei, zigorra; eta sarritan, ausardia garesti ordaindu behar izaten zuten gainera, halakoetan egunak zenbatzea baino ez bazitzaizen geratzen.

Gerora, horma sendoagoak dituen zementuzko zirkulu antzeko baten erdian ere jarri izan dituzte (banaka), alde zauritu ostean jendaurrean hiltzeko; zenbaiten gozamen hutserako, nork agintzen duen argi erakusteko. Batzuek, hesitutako larrean belar "nahikoa" dagoenez, lasai jarraitu dute beraien otzantasunean burua makurtu eta egoerara ohitzen (eroso antzean); gosea aseta, askatasun egarrik ez. Beste zenbaitek, aldiz, azpiratzaileei adar zorrotzak erakutsi izan dizkiete, ondorioa zigorra izango dela jakinda ere.

Toreatzaileak paparra harrotasunez ateraz lasai asko hil izan ditu oldartzen diren zezen zaurituak; zezenak, orde, bere nagusitasuna erakutsiz bera menperatzea eta hiltzea helburu duen toreatzaileari adarra sartuz gero, gaizto-arriskutsutzat hartu izan dira. Paturik ankerrena baino ez zaie geratu halakoetan (umiliazioz, gainera). Eta jarraian, inon idatzi gabeko ohar argia datorkio burura errukitu denari: "Ez hadi saiatu haren alde egiten/jartzen, bestela heu ere jo-puntu egongo haiz; hortaz, hobe hago isilik!"

Zezen-plazetan, hildako zezenaren buztana erakusten dute hiltzaile-heroiek, txalo zaparrada artean. Oraingo honetan, berriz, zezenaren burua erakusten digute "arrazoiaren" jauregitik; hau da, oraindik ere zezenaren buruaren jabeak beraiek direla argi erakutsi nahi digute, zein den boterea(n) dagoena eta zein zapaldua argi adieraziz, burua irabazlearen trofeo gisa erakutsiz, Espainiako Sofia erreginaren izena daraman museoa "babesleku" duela.

Burua gorputzari itsatsita jarraitzen duten zezenek hesi artan jarraitzen dute (oharkabea bada ere, behartutako egoerara gero eta ohituago); eta noizbehinka, baten batzuek burua altxatuz gero, zigorrak jasaten jarraitzen dute. Ez zaizue inor etortzen burura? Ez joan urrunera; ispiluak nonahi.

Eurena zen lurra berreskuratzea xede bizi (euretako zenbait), eta hiltzerakoan baino ez zieten lurra eman; hori bai, orduan, lur arrotza, senideen goxotasunetik urrun dagoen lur lehor bezain hotza.

Argitaratzailea

Karenka Komunikazio Elkarteak
Barrenkale 12, behe
20830 Mutriku

Tel. **635 748 393**

e-posta **aldizkaria@kalaputxi.eus**

Webgunea: **www.kalaputxi.eus**

Bloga **www.kalaputxi.blogspot.com**

Laguntzailea **Mutrikuko Udala**

Kolaboratzaileak

Josu Larrañaga,
Inhar Mutiozabal

Tirada **2.200 ale**

Lege Gordailua **SS-787/01**

ISSN **1579-4792**

Inprimategia **EUSKALINPRI**

Banaketa **Kalaputxi**

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak
Mutrikuko Udalaren dirulaguntza
jasotzen du:



Mutrikuko Udala



UZTAILA eta IRAILA

astelehenetik ostiralera

... MUTRIKUTIK

DB03 Donostiara

06:45; 10:20; 13:20; 18:20

DB04 Mallabiara

07:15, orduro, 20:15; 21:25; 22:15; 22:45 (Ostr. 23:25; 01:15)

DB05 Zumaia

06:25; 09:25; 11:25; 13:25; 16:25; 16:25; 18;25ÇÇ

DB06 Soraluzera

08:45; 10:45; 12:45; 14:45; 17:45; 19:45; 21:45

... MUTRIKURA

DB03 Donostiatik

08:00; 11:00 14:30; 18:00; 20:30

DB04 (Mallabia) Eibartik irteteko ordua

06:05; 07:05; orduro; 21:05; 22:10; (lanegun ostr. 22:30)

DB05 Zumaia

08:10; 10:10; 12:10; 15:10

DB06 Soraluzetik

07:40; 09:40; 11:40; 13:40; 16:40;18:40; 20:40

UZTAILA eta IRAILA

larunbat, igande eta jai egunak

... MUTRIKUTIK

DB03 Donostiara

08:30; 13:00; 17:30; 19:30

DB04 Mallabiara

07:15, orduro, 20:15; 21:25; 22:15

DB05 Zumaia

08:25; 10:25; 12:25;

DB06 Soraluzera

09:45; 11:45; 13:45; 17:45; 19:45; 21:45

... MUTRIKURA

DB03 Donostiatik

10:30; 14:30 17:00; 20:30 (lg.); 21:00 (Lr.)

DB04 (Mallabia) Eibartik irteteko ordua

07:00; orduro; 22:00; 22:15

DB05 Zumaia

09:10; 11:10; 13:10; 15:10; 17:10; 19:10; 22:10

DB06 Soraluzetik

08:40; 10:40; 12:40; 16:40;18:40; 20:40

ABUZTUA

astelehenetik ostiralera

... MUTRIKUTIK

DB03 Donostiara

06:45; 10:20; 13:20; 18:20; 21:30

DB04 Mallabiara

07:15, orduro, 20:15; 21:25; 22:15; 22:45 (Ostr. 23:20; 01:10)

DB05 Zumaia

07:25; 09:25; 13:25; 15:25; 18:25; 21:25

DB06 Soraluzera

10:45; 12:45; 14:45; 17:45; 19:45; 21:45

... MUTRIKURA

DB03 Donostiatik

08:00; 11:00 14:30; 20:30; 23:00

DB04 (Mallabia) Eibartik irteteko ordua

06:05; orduro; 21:05; 22:15; (Ostr. 22:10; 00:00)

DB05 Zumaia

08:10; 10:10; 14:10; 16:10; 20:10;23:10

DB06 Soraluzetik

09:40; 11:40; 13:40; 16:40;18:40; 20:40

ABUZTUA

larunbat, igande eta jai egunak

... MUTRIKUTIK

DB03 Donostiara

08:30; 13:00; 17:30; 19:30; 21:30

DB04 Mallabiara

07:15, orduro, 20:15; 21:25; 23:20 (Ostr.); 01:10 (Ostr.)

DB05 Zumaia

07:25; 09:25; 13:25; 15:25; 18:25; 21:25

DB06 Soraluzera

10:45; 12:45; 14:45; 17:45; 19:45; 21:45

... MUTRIKURA

DB03 Donostiatik

10:30; 14:30 17:00; 20:30 (lg.); 21:00 (Lr.); 23:00

DB04 (Mallabia) Eibartik irteteko ordua

07:00; orduro; 21:00 (Iga.); 22:00 (Lar.); 22:15 (Iga.) Lar: 0:45; 02:45; 4:45; 05:45

DB05 Zumaia

Lar: 11:10; 14:10; 17:10; 20:10; 23:10 Iga.: 11:10; 14:10; 16:10; 18:10; 20:10; 23:10

DB06 Soraluzetik

10:40; 12:40; 16:40; 18:40; 20:40

www.euskotren.eus

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero		Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
BILBOTIK		7:00	20:00	DonostiaTIK	5:50	7:50	20:50
Eibar	6:14	7:14	21:14	Errekalde	5:59	7:59	20:59
Elgoibar	6:24	7:24	21:24	Orio	6:14	8:14	21:14
Mendaro	6:33	7:33	21:33	Zarautz	6:20	8:20	21:20
DEBA	6:44	7:44	21:44	Zumaia	6:29	8:29	21:29
Zumaia	7:00	8:00	22:00	DEBA	6:43	8:43	21:43
Zarautz	7:08	8:08	22:08	Mendaro	6:52	8:52	21:52
Orio	7:15	8:15	22:15	Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Errekalde	7:29	8:29	22:29	Eibar	7:11	9:11	22:11
Donostia	7:38	8:38	22:38	Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO			BILBO - ONDARROA		
astelehenetik ostiralera			astelehenetik ostiralera		
	lehena	azkena		lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40	A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25			Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	6:10	20:10	A3915 Durangotik	7:40	21:40
Ondarroatik Bilbora zuzenean: 6:30; 7:30					
jai egunak			jai egunak		
A3916 Ermuatik	6:40	20:40	A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	7:10	20:10	A3915 Durangotik	8:40	21:40

BIZITZA ERDIGUNEAN JARRIKO DUTEN HIRIGINTZA POLITIKAK NAHI DITUGU

Mutrikun erdigunean geratzen den azken berdeguneko hondeamakinak urte luzeetako hirigintza politikaren sinbolo bilakatu dira, eta herria nola bizi eta ulertu nahi dugun pentsatzera eraman gaitu.

Kapitalismoak natura eta inguruarekiko begirada produktibista eta merkantilista bultzatzen dituen honetan, non lurra merkantzia hutsa bihurtzen den, herritarren bizitzaren prekarizazioa gero eta handiagoa da. Hau da, bizitza bizigarriei lekua egin eta herritarren elkargunea izatea ahalbidetu dezakeen espazio naturalak izan ordez (izan parke, izan jolastoki; zein berdegune, zelaia bere horretan nahikoa dira eta), zementuzko eraikin pribatuak sortzen ari gara. Non daude zaharrak aldaparik gabe kalean lasai ibiltzeko espazioak? Hizketan egoteko plaza eta leku libreak? Non ume, eta gazteak herri barruan naturaz gozatzeko aukerak?

Etxebizitzaren krisiari erantzuteko erabaki estrukturalak eman behar zaizkiola ulertzen dugu: etxebizitza hutsen erabilera sustatzeko politikak ezarri eta etxebizitza eskubide gisa ulertuz (etxebizitza hutsak dituztenei presio fiskala arragotzea beste herri batzuetako politika bilakatzen ari da, eta eredu izan daiteke). Hala, etxebizitzaren prezioaren espekulazioa ekiditeko bidean, hirigintza politikak funtsezkoak dira eta herritarroi, eta bereziki kolektibo zaurgarrienei, etxebizitza eskubidea bermatzen digun herria nahi dugu.

Bizitza erdigunean jarriko duen hirigintza feminista bat nahi dugu. Urte guztian Mutrikun bizi garenon beharrianak asetuko dituen, eta ez gero eta hurbilago dugun turismo eredu masifikatuari bidea emango diona, eta aberastasunaren banaketa desorekatuan sakontzen duena: etxebizitzak airbnb-an asteburuak pasatzera datozenentzat, bigarren etxebizitzatzat etxeak erosten ari direnentzat edo hotela bisitariarentzat. Guzti horrek neguan herria bizitza gabe egotea dakar, pertsiana jeitsiez jositako etxeekin. Eta bien bitartean ez etxebizitza ez alokairurik herritarrentzat.

Paradigma aldaketa beharrean gaude, ikuspegi esplotatzailea albo batera utzi eta deshazkundean oinarritutako ekonomiari bidea egin beharrean. Bizigarriak diren guneak nahi ditugu, herritarrok egoteko izango diren espazio publikoak, zuhaitzak eta itzalguneak dituztenak. Horrez gain, etxebizitza eskubidea bermatzeko baliabide errealek jarri behar ditugu. Memoria, kultura, euskara, natura, lurra, eta, zaintza publiko eta komunitarioari bide egingo dion herria nahi dugu.

EMA

Mutrikuko Talde Feminista

ZORBIDEAK ZABALIK!

Jakinekoa da “herri-bideak” herriaren edo udalaren jabetzakoak diren bide publikoak direla eta bide horiek libre utzi behar direla, hau da, ezin direla itxi.

Zer dakigu, ordea, “zorbideei” buruz? “Zorbideak” edo “pasos de servidumbre” gaztelaniaz, gehienetan jabetza pribatuko lursailen edo baserrien arteko igarobideak dira. Bide hauek zortasun-eskubidea edo “derecho de servidumbre” jasotzen duten bideak dira historikoki; hau da, jabetza pribatua izan arren, mugakide diren beste

jabe batzuek edo herritarrek bertatik pasatzeko eskubide legala dute. Halaxe jasota dago Euskaltzaindiaren hiztegioko definizioan ere:

zorbide

iz. Bide mota, lur jabedunean zehar igaro arren, auzoek bertatik ibiltzeko eskubidea dutena.

Azken urtetan, mutrikuarrok erabili izan ditugun hainbat pasabide itxi direla ikusi dugu, besteak beste Olatzera joateko atajua, Leizarren azpiko haitzetara joateko bidea eta, azkenik, Entzuskoko atajua. Zer izaera zeukaten/daukate pasabide horiek? Garbi dago herri-bideak ez direla, bestela ez zituzten itxiko, baina zorbide izaera daukaten edo izan beharko luketen aztertzea beharrezkoa iruditzen zaigu.

Aurreneko biei buruzko informazio bilketarik ez dugu egin, baina Entzuskoko atajuari buruz jaso ditugun datu batzuk eman nahi ditugu. Batez ere, jakinda auzotar zein herritar askok erabili izan dugula Galbaixora joateko zein kalera jaisteko.

Entzuskoko atajua gutxienez 1815. urtetik erabili izan da: badago hala zehazten duen plano historiko bat, eta pasabidea erabiltzen zela dioten testigantza idatzia ere bai. Beranduago, 1906. urteko udal akta batean ere egiten da Entzuskoko bidearen aipamena. Gaur egungo auzotarren testigantzak ere baditugu, “Entzuskoko atajua” betidanik erabili izan dutela diotenak, hasi Galbaixo bueltako baserrietatik eta Olabarrieta zein Astigarrabiako baserrietaino. Zer esanik ez, mutrikuar kaletarrek ere, Galbaixo jaietan zein pasieran atajuan barrena ibili izan dira.

Bestetik, gaur egun ezagutzen ditugun eskailerak auzolanean egin zituztela dioten testigantzak ere jaso ditugu, 1980. hamarkadaren erdialdera, lur-jabeak gastuak ordainduta baina auzotar zein herritar batzuek lagunduta eraiki zirela diotenak.

Orain dela pare bat urte, txakurren batek ardiei erasotzen zela eta txakur-jabeak ez zela kasurik egiten argudiatuta, lur-jabeak pasabidea itxi zuen. Itxiera horren aurrean, eta ikusita mutrikuarrentzat ataju honek duen garrantzia, udalak proposatu zion jabeari atajuaren albo biak itxituraz babestu eta eskailerak garbi mantentzeko lanak bere gain hartuko zituela. Baina “Entzuskoko atajuak” itxita jarraitzen du...

Badaude legeak eta artikulua zorbide edo pasabideen izaera eta erabilera arautzen dituztenak. Espainiako kode zibilak, adibidez, honakoa dio: “Zorbidea, titulu bidez edo hogeitaz urteko erabileraren (preskripzioaren) bidez eskuratzen da”.

Euskal Zuzenbide Zibilak, berriz, hau esaten du: “Jabeak eskubidea du bere jabetzako lursaila itxeko, baina ezin du eragotzi partikularren pasabidea irabazi-asmorik gabeko erabilerarako, betiere ibilgailurik erabiltzen ez bada”.

Entzuskoko atajuak zorbide izaera daukala esateko besteko ebidentziak badauzkagu, baina udalaren eskumena da zorbide horien izaera eta erabilera arautzea. Hortaz, Mutrikuko Udalari eskatzen diogu egin dezala herriko zorbideen inbentarioa, jaso ditzala erregistroan, eta jarrai dezala eman beharreko pausuak ematen zorbideak denontzat irekita egongo direla bermatzeko.

Zorbideak zabalik herri ekimena

MUTRIKUKO SUAREN AURKAKO TALDEA

Bi urte betetzera doaz Mutrikuko Barrenkalean etxe bat osorik kixkali zenekotik. Horren harira, udaletik urratsak ematen hasi ziren, eta lanbidez suhiltzaile diren herritarrek zein egindako deiari erantzun dioten boluntarioek bat eginda osatu duten taldeak bukatzeaz ditu bere lanak *Mutrikuko Suaren Aurkako Taldea* gauzatu eta funtzionamenduan jartzeko.

Aitor Itza Iparragirre zinegotzia eta Jokin Larrañaga Illarramendi suhiltzailea batzartu dira gurekin, emandako urratsak eta gaurko egoera herritarroei azaltzeko Kalaputxiren orrietan. Biak aritu dira, bakoitza bere arlotik galderei erantzuten.

Noiztik buruan sutearen aurka prestatu beharrean gaudela mutrikuarrok?

Uste dugu Bermeoko alde zaharrean 2013ko apirilaren 11n izaniko suteak denoi pentsarazi zigula, baldintza berberetan edo okerragoan genuela herria, baina, lehenetasunak edo dena delakoak tarteko, ez zen inoiz erabaki garrantzitsurik hartu, orain bi urte egitera doazen Malen jaietan Barrenkaleko 6 zenbakidun etxea suak goitik behera kixkali zuen arte. Orduan tentetu zitzaizkigun belarriak, eta jabetu zenezari adarretatik heldu behar zitzaiola, zeren gertatu zena baino gogorragoa ere izan zitekeen egoera ezberdin batzuk tarteko izan balira.

Zeintzuk izan ziren emandako lehen urratsak?

Logikak adierazten duen bezala, jakitunekin harremanetan jartzea izan zen lehenengo lana. Herrian, zorionez, lanbidez suhiltzaile direnen taldetxo bat dugu, beraz, eurekin jarri ginen harremanetan, eta bilera bat prestatu.

Lehen bilera horretan nahiko maila orokorrean aritu baginen ere, garbi geratu ziren gure artean; batetik, arriskuak ekidin edo txikiagotzeko zerbaite egiteko nahi sendoa zegoela udalaren aldetik, eta, bestetik, sute bati aurka egiteko orduan Mutrikuk dituen arazo handienak zeintzuk diren:

- 35 minutu behar direla Eibarko suhiltzaileak Mutrikura heltzeko —aipatu, kamioien aurretik, autoz zuzentzen dela talde bat bidaia denbora murrizteko—;
- Mutrikuko alde zaharreko zenbait kaletan arazoak daudela kamioiak sartzeko edo eurekin aritzeko, aldapan daudelako edo zabalera txikikoak direlako;
- Alde zaharreko etxeek egurrezko egiturak dituztela, eta hauek gogozko ekaia direla suarentzat.

Bestalde, kontuan izan behar dugu zartagin baten gerta daitekeen sua itzaltzeko gai ez bagara eta suak goiko xurgagailura bide egiten badu, ordu erdira sukalde osoa dugula sutan, hurrena solairu osoa, ondoren beste solairuak, etxe osoa atzetik, eta alboko etxeak jarraian. Jakitun izanik suhiltzaileak iristeko aipatu dugun denbora deia jasotzen dutenetik behar dutela, 45 minutu igaroko dira gutxienez su horren aurka

lehenengo ur tanta jaurtitzen den unera arte.

Nola jokatu zenuten lehen harreman horren ondoren?

Mutrikuko alde zaharreko mapa —orain arteko urrats guztietan alde zaharra besterik ez dugu begietsi— aztertu genuen suhiltzaileok udaleko arkitekto teknikoarekin batera, suhiltzaileek jarduteko non zer arazo dauden markatuz, eta puntu guztiak zerrendatzen joan ginen.

Hurrena, kontzientziazio mailan eragitea izan zen. Zabiela jauregira deitu zen hitzaldi batera 2024ko abenduan bi mezu zabalduz: nola saihestu sua, eta nola jokatu sua sortzean. Interesa sortu zuen hitzaldiak agertu zen adin ezberdinetako jendearen artean.

Informazioa zabaltzeari ere ekin zitzaion Kalaputxi erabiliz, abendu horretako 255. zenbakian «Etxean sua..., eta orain zer?» tituluarekin surik ez gertatzeko aholkuak emanez, eta, sua gertatuz gero, nola jokatu adierazten. Aholkuen artean bereziki azpimarratu zen 112ra ahalik eta azkarren deitzeko. Suhiltzaileen iritsiera errazteko egindako hausnarketaren berri ere zabaldu zen, azpimarratuz behin eta berriz GAIKZI APARKATUTAKO AUTOAK SOR DITZAKETEN GAIN-ARAZOAK.

Eusko Jaurlaritzak subentzionatuta zetorren laurogei urtetik gorakoentzako ke-detektagailuen kanpainaz ere aritu ginen. Gipuzkoako Diputazioko larrialdietako zerbitzuen goi-kargu bat ere izan zen etxeetako suteen prebentzio, jokaera eta jarrerari buruzko aholkuak ematen.

Eta aurrera egitea erabaki zenuten...

Bai. Herritarrek ordura arte izandako jarrera baikorrenekin jabetuta, oraindik prekauzio handiarekin, herrian boluntario talde bat sortzeko asmoarekin hasi ginen. Horretarako, hausnartzera jo genuen ea zer funtzio bete beharko zuen boluntarioen talde horrek, eta zela eratu beharko zen lege-babes neurri guztiekin.

Lehenbiziko puntua garbi ikustera iritsi ginen: suhiltzaileei harrera egitea bata, eta alboetako etxeak babestea bestea. Taldearen eraketarena zailago gertatu zitzaigun, ez genuelako menderatzen lege-babes kontuak. Orduan, erabaki genuen



ALAZNE OPTIKA

Jose M^a Altzibar etorbidea 1
Tel. 943 60 31 54 - alazne.optika@gmail.com



ASTIGARRAGA ANAIK, S.L.U.
ERAIKETAK

Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es

Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)



Boluntarioak Su Eskolan praktikak egiten

beste zenbait herriekin harremanetan jartzea, euren funtzionamendua ezagutu eta guretzat egokienak zitezkeen erabakiak hartzeko. Hala egin zen, eta hala moldatu genuen nolako egitura beharko zuen taldeak. Azken pausoa herritarrei dei bat zabaltzea izan zen, jakiteko, erantzunaren arabera, boluntarioen talde bat sortzeko baldintzarik beteko zen.

Dei egin, eta nolakoa izan zen erantzuna?

Agian, uste baino zabalagoa, hogei bat lagun azaldu baitziren deialdira. Gure asmoen berri eman genien: zer lortu nahi zen sortzen zen taldearekin, eta zeintzuk eta norainokoak izango ziren boluntarioen funtzioak. Baina, jakiteko geunden agertutako denek erantzungo ote zioten hurrengo deiarri, non aurrerapausoak ematen hasiko ginen. Bitarte horretan, badirudi gure mezua ahoz-ahoz zabaldu zela, eta handitu egin zen partehartzaileen kopurua: hogeita bost bat bildu ziren hurrengo bileran. Material gizatiarra aurrean zenez, taldearen prestaketan hasi beharra zegoen. Udalaren aldetik sute baten aurka jokatzeko materiala eskuratzeari ekin zitzaion.

Taldea prest duzue; nondik hasten zarete lanean?

Egindako bi bileretan boluntarioei aipatu genien antolatzearen garrantzia. Eta berriro, indar handiagoarekin, ekin genion bide beretik: taldeko partaide bakoitzak bereganatu behar zuela antolaketaren kontzientzia, eta talde jokaeran beti eduki presente.

Mutrikuko alde zaharrak lau puntu besterik ez ditu suhiltzaileen kamioiak iritsi eta lanean hasteko modukoak: Portua, Barrenkaleko postetxe pare, Goiko Plaza eta Samikollako Ibilbidearen hasiera, beraz, Suaren Aurkako Taldeko batzuk prestatu behar dira, sua non gertatzen den, suhiltzaileak puntu hauetara zuzentzeko. Suhiltzaileak Eibarretik, Markinatik edo bietatik etor daitezkeenez, prestatu egin beharko dira herri sarreretan harrera egin eta leku egokienera bideratzeko.

Beste talde bat, materiala esku artean dugunean, arduratuko da mangerak luzatzeaz ur-hartune (hidrante) batetik sutea

gertatzen ari den etxe aurrera arte. Zer egin behar duten badakite jada taldekideek, beraz, hurbildu daitekeen jendearen indarrak ere baliatu ditzakete beti antolakuntza kontzientzia horrekin jokatzuz, eta beti suteak sortzen duen izuak ekidinez.

A priori, hor bukatzen da Suaren Aurkako Taldearen lana, bitarte horretan suhiltzaileak bertaratzeko espero delako.

Zer formakuntza jaso dute aipatu dituzuzen egitekoez gain?

Beti azpimarratuko dugu hori dela euren egin beharra, ez gehiago, ez gutxiago. Euren mugak non dauden garbi jakin behar dute.

Baina aipatu dugun izu egoeran zaila denez ezer ongi egitea, beraz, ahalegindu gara suari beldurra errespetu bihurtzen. Horretarako, erabaki zen Ispasterreko suaren unibertsitatea deitzen dioten eskolan praktika batzuk egitea. Suari buruzko alde teoriko bat izan zen lehena; prebentzioari buruzkoa bigarrena, arriskuak ere ezagutzuz; eta hirugarrena praktikoa, mangera eta su-itxalgailu ezberdinak erabiltzekoa. Askotan erabiltzen dugun ATEAK ITXI aholkuaren garrantzia agerian ikusi zen.

Alde teoriko horretan leihotik kea edo sua ateratzen dela ikusiz gero nola jokatu praktikara eraman genuen Egaña frontoi inguruan mangerak ur-hartunean konektatu eta balizko leiho baten aurka eginez.

Zertan ari zarete orain momentuan?

Sistema nola aktibatu era egokienean. Ez dugu uste zaila izango denik, baina protokoloen bat ezartzekotan gaude nork, nola, noiz, nondik... azterketa baten ondoren.

Bestalde, alde zaharreko hiru puntutan armairu gorri batzuk daude jarrita: Zabil Plazan, Beheko Plazan (Aparra denda aurrean) eta Samikollako Ibilbide hasieran. Armairu horiek ur-hartuneen ondoan daude, eta laster hornituko dira suaren aurkako materialez. Puntu horietatik luzatuko dira mangerak.

Eta boluntario guztiei, suhiltzaile nahiz herritar, ESKERRAK ematea udalaren aldetik!



Kalbaixo
JATETXEA

Laranga Auzoa
Tel. 943 60 32 56
kalbaixo@gmail.com
MUTRIKU - Gipuzkoa




aparra
JANTZI DENDA

Erdiko kale 29 · 20830 Mutriku · Tel.: 943604594

MUTRIKUKO TRAINERUA URETAN

Mutrikuko Arraun Taldekoak etsita zeuden herriko mutilik bogan ikusiko zutenik. Emakumezkoen partaide kopurua gorantz egiten ari zen urtetik urtera, baina mutil bakanak soilik jartzen ziren tostartean. Aurten, oster, futbol munduan ibilitako talde ondradu batek erabaki zuen arraunari heldzea, eta hor jardun dute batel eta trainerila estropadetan. Hala ere, zaila ikusten zuten trainerua ateratzea, estropadak udan jokatzeko direnez, ez delako erraza estropaden egutegia arraunlari guztien bizitzarekin uztartzea.

Baina talde batek hartu du konpromisoa udaldian aritzeko, eta getariar batzuen laguntzarekin, lortu dute eskifaia osatzea, eta hor da trainerua KAE2 ligan parte hartzen Busturialdea, Castro, Portugalete, Camargo, Deustu, Laredo eta Lutxanarekin. Helburua, bakan bati aurea hartuta ibiltzea zen, eta orain arteko lehiaketetan lortu dute: Astilleron, ekainaren 20an, seigarren, Elantxoben, ekainaren 27an, zazpigarren, eta azken bietan Mutriku, ekainaren 28an, eta Bilboko erlojupekoan, uztailaren 4an, seigarren postua lortu dute eta hurbil ari dira Busturialdeko trainerutik estropada batzuetan. Kalaputxi hau inprimategira bidaltzerakoan sailkapenean seigarren da Mutriku 11 punturekin. Aurretik Busturialdea du 17 punturekin, eta atzetik Laredo 9 puntu eta Lutxana 4 punturekin. Gustura daude emaitzekin, jakinik gehientsuenek aurten heldu diotela lehen aldiz arraunari.



ITSASOAN GALDUTAKOEI OMENALDIA

Ekainaren 29an, San Pedro egunez, azken urteetan ohikoa gertatu den omenaldia egin zitzaion itsasoan galdutako mutrikuarrei Kofradia Zaharreko eraikina dagoen moila muturrean.

Aulkiak jarrita zeuden aurreko eremuan alkateak hartu zuen hitza lehenbizi eta gogoratu zuen arrantzarekin lotua izan den gure herriko seme-alabak garela, eta eginkizun horretan askok utzi zutela euren bizia, familien malkoz gazitutako gure Kantaurin. Ezin ditugula ahaztu gure arbasoak, eta merezi dutela omenaldi xume hau, euren memoria galdu ez dadin. «Gaurko eguna ere probestuko dugu, zioen, memoria hori izen-deiturez jaso eta "Itsasoan galdutako mutrikuarrek (1560-2009)" liburuxkan gure eskura izateko aukera eman zigun, eta zendu berria den, Xabier Basterretxea Burgaña "Txordo"ri omena egiteko».

Ondoren, Agurra dantzatu zuten dantzariak txistulariek lagunduta, eta, jarraian, Peru Vidal Gurrutxagak zuzendu zituen bertso hunkigarriak han bildutako guztiei. Aitor Itza Iparragirre zinegotziak gidatu zituen jarraiko ekintzak, eta Xabierrren familiakoei deituz, egunaren gogorapenerako, opari bat eman zien Ainhize alkateak, herritarren esker-ona adieraziz.

Txomin Zabaleta Aranberri, herriko parrokoak, itsasoan galdutakoei zuzendutako otoitza izan zen hurrengo, eta abesbatzak, Ainhize zuzendari zutela, "Alarguna" abesti ezagun eta sentimenduz betetako kantuarekin eta itsasora jaurtitako loreekin bukatu zen ekitaldia.

Baina gehiago ere izan zen. Aurreko egunetan, Jon Naberan eta Pedro Basterretxearen gidaritzapean, orain ehun eta bi urte jarritako horma-hobian dagoen San Pedroren irudia eraberritu eta txukundu zuten, ehunka urtetan arrantzale mutrikuarren zaindaria izan den San Pedroren irudiak parrokoaren bedeinkapena jaso zuen.

Ohiko montxorrarekin bukatutzat eman zitzaion ospakizunari.






Iriagirre z/g

Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)



Alday
HORTZ KLINIKA

618 09 18 52 / 943 60 39 53
San Agustin 5, behea MUTRIKU

www.aldayhortzklina.com

DEBABARRENEKO BEGIRALE IKASTAROA

Debabarreneko udalek 25/26 ikasturtean antolatutako Begirale ikastaroak bukatu du, dagoeneko, bere ibilbidea. Ikasturte honetan bi taldek parte hartu dute Gaztetxoak Eskolako teknikariek eman duten ikastaroan, eta, orain, ikasleak praktikak egiten ari dira han eta hemen. Guztira, 33 lagun izan dira ikastaroa bukatu dutenak, tartean, hiru mutrikuar. Praktikaldia bukatu ondoren, Eusko Jaurlaritzak homologatutako "Haur eta Gazteen Aisialdirako Begirale" titulu ofiziala eskuratuko dute. Lortutako arrakasta ikusita, 2026-2027 ikasturtean ere ikastaroa eskainiko dute Debabarreneko udalek.

Debabarreneko herri batean emango den ikastaroan parte hartzeko, ikasleek 18 urte izan beharko dituzte atal teorikoa amaitzen denerako, hau da, 2027ko ekainaren 30erako. Ikastaroaren prezioa 300 eurokoa izango da, baina Debabarrenean erroldatutakoentzat, 150 euro. Urrian hasi eta maiatzean bukatuta, ikastaroak 150 ordu iraungo du atal teorikoan, tartean asteburu osoko hiru irteera, eta 160 praktika ordu izango ditu. Izena emateko epea irailaren 18an amaituko da. Informazio gehiago nahi duenak, deitu 943 744366 zenbakira.

Izen-ematea: labur.eus/debabarrenabegirale

DEBABARRENEAN AISIALDIKO BEGIRALE IKASTAROA 2026 - 2027



Larunbatetako saioak **Debabarreneko bi herritan***.
Asteburuak La Arboleda aterpetxean.
*Izen-emateen arabera zehaztuko dira herriak.

Urritik ekainera bitartean
• 9 larunbat
• 3 asteburu

300 € (Debabarrean erroldatuak: 150 €)

Matrikulazio epea: irailaren 18ra arte (plaza mugatuak)

Matrikulazioa formulario bidez: <https://labur.eus/debabarrenabegirale26>

Informazio gehiago: euskara@elgoibar.eus / 943 744366

EUSKALTZALEON MARTXAREKIN BAT

Ekainaren 13an, Iruñeko kaleak Euskal Herri osoko euskaltzalez betetzeko mobilizazio jendetsua antolatu zuten Euskalgintzaren Kontseilua osatzen duten eragileek, «Euskaltzaleon Martxa» lelopean.

Euskararen normalizazio eta biziberritzean asko aurreratu dugu azken hamarkadetan, baina gero eta gehiago dira larritasuna adierazten diguten datuak, ikerketak eta aurreikuspenak. Euskarak jauzi bat behar du hizkuntza-politikan. Paradigma aldaketa bat. Ezagutza benetan orokortuko duten politikak, erabilera normalerako baldintzak sortuko dituzten neurriak, ofizialtasuna Euskal Herri osoan, zeharlerrotasuna politika publiko guztietan. Tresnak badakizkigu. Oinarriak landuta daude. Adostasun sozial zabala eraikitzen ari da.

Hala ere, badakigu euskararen normalizazioa eta biziberritzea eraldaketa sozialeko prozesu bat dela, eta, ondorioz, aurrerapausoak ez direla soilik esparru instituzionalean erabakiko. Indar sozial antolatua eta herritarren inplikazioa ezinbestekoak dira euskaltzaletasunaren giharra indartzeko. Testuinguru horretan kokatzen da Iruñean egindako mobilizazioa. 2024an irekitako bideari jarraipena emanez, helburu harturik egungo larrialdi linguistikotik indarraldira igarotzeko premia gizarteratzea eta pizkunde berri baterako txinparta izatea.

Abenduan Bilbon egindako ekitaldiak diskurtso hori plazaratzeko balio izan bazuen, ekaineko hitzordua Pizkunderako behar ditugun baldintzen aldarrikapenerako gunea izan da. Euskaltzaleok antolatzeke beste urrats bat, Euskaraz bizitzeko behar den dena eskuratzeko bultzada. Euskalgintzako eragile garen aldetik, gure egitekoa giltzarria da: mobilizazioaren zentzua partekatzea, atxikimendua adieraztea eta herritarren aktibazioan eragitea. Ekainaren 13koa mugarri izatea nahi dugu, eta horretarako ezinbestekoa izango da guztion inplikazioa!

Goizeko Izarra ikastola osatzen dugun ikas komunitateko irakasle, ikasle eta familiok gure aldarria eta erabakia argia dela adierazi nahi dugu: Euskaraz bizi nahi dugu eta euskaraz bizitzeko behar den dena egiteko prest gaude!



ARRIZABALAGA

Okela eta janari prestatuak

Erdiko kale 26 Tel. 943 60 34 95

JM Altzibar etorbidea 2 Tel. 943 60 30 65

ospakizunak, bazkariak, bataioak, eguneko menua...

SAN JUAN JATETXEA

Mutriku-Deba errepidea, Laranga auzoa

Tel.: 943603167 (jatetxekoa)

GIDABAIMENA EUSKARAZ: BI ZIKLOMOTOR ELEKTRIKO ZOZKETAN

Euskadiko Autoeskolen Federakuntzak koordinatu eta kudeatzen duen Gidabaimenak Euskaraz egitasmoaren baitan bi ziklomotor elektriko zozkatuko dira gidabaimena euskaraz prestatzen eta egiten dutenen artean. Helburua argia da: gidabaimena euskaraz ateratzeko hautua sustatzea eta gero eta ikasle gehiagok bide hori aukeratzea.

15 urtetik gorakoa izanda 2026ko urtarriletik abenduaren 3ra bitartean gidabaimenaren prestakuntza teorikoa eta azterketa euskaraz egiten dutenek parte hartu ahal izango dute zozketan. Azterketa euskaraz egin dela egiaztatzeko ziurtagiria eskatuko da, eta parte-hartzaileek hiru hilabeteko epea izango dute zozketaren ondoren egiaztapena aurkezteko.

Gaur egun, gero eta autoeskola gehiagotan dago aukera gidabaimena euskaraz prestatu eta egiteko, material eta baliabide eguneratuekin. Ekimen honen bidez (<https://gidabaimenakeuskaraz.eus>), aukera hori are gehiago indartu nahi da.

Zozketan izena emateko, sartu hemen:

<https://labur.eus/gidabaimenaeuskaraz>

GIDATU EUSKARAZ BI ZIKLOMOTOR ELEKTRIKOREN ZOZKETA

PARTE HARTU !



Gidabaimenak
Euskaraz

Euskadiko Autoeskolen Federakuntza

UDAKO IKASTAROA EUSKALTEGIAN


DEBABE Udal Euskaltegiak, 2026 urteko bigarren deialdiari begira, udako ikastaroa antolatu du B2, C1 eta C2 mailetako azterketak prestatzeko. Ikastaroa irailaren 7an hasiko da eta irailaren 25era arte luzatuko da, guztira 30 ordukoa izanik.

Izena emateko epea uztailaren 1etik 17ra eta irailaren 1etik 3ra izango da, eta, izena emandako bizilekua kontuan hartuta, ikastaroa herri batean edo bestean antolatuko da.

Informazioa eskatzeko telefono zenbakia honako hau da: 943 742731 edo, aurrez aurreko arreta nahi bada, Udal euskaltegiaren Elgoibarko bulegoetara hurbildu (Aita Agirre Plaza 3-3.solairua).

EUSKARA

ERRITMO BIZIAN



EUSKAL SELEKZIOA ORAIN!

Ekainaren 18an Euskal Selekzioaren aldeko elkarretaratzea egin zuen Mutrikuko Goizeko Izarra ikastetxeko hezkuntza komunitateak. Bertan, gizonetako munduko futbol txapelketaren atarian, beste behin ere gure selekzioari bertan egotea galaraziko zaiola salatu nahi izan zuten. Gizartearen %75 Euskal Selekzioaren ofizialtasunaren alde dago, ez soilik futbolearen, baita gainerako kirol guztietan ere. Izan ere, badira nazioartean lehiatzeko eskubidea duten hainbat estatu gabeko nazio, hala nola, Gales, Eskozia, Feroe Uharteak, etab. Ekimen honen bitartez, herriaren borondatea errespetatu eta gauzatzea aldarrikatu nahi izan zuten.



IBARPLAS

leihoaren erreferentzia

HAUTSEZINA

Geure begiekin ikusten ez duguna sinistea asko kostatzen zaigu. Ez dugu erraz barneratzen buruan sartuta daukagunetik kanpo geratzen dena. Eta, hala, gaitza izaten da ulertzen ez dugunean konfidantza izatea, besteengan nahiz geure buruarengan.

Hautsezina pelikulak bitzta arrunt bat hankaz gora nola jarri daitekeen erakusten digu, ezohiko gertakizun bat gertatzean. Pertsona normal batek ordura arte sinisten ez zuen egoera batean ikusiko du bere burua, eta horretan zerbait berezia egiteko aukera sortuko zaio.

Ez da erraza bizi baten zentzua bilatzea. Ohikoagoa da bide horretan amore ematea, bizitzako oztopo guztiekin talka egin eta gero. Hainbeste alditan hautsi eta gero. Zeure buruan sinetsita, ordea, beste inor ailegatu ez den lekuetara iritsi ahal zara... Zeren truke?

«Zu zein zaren jakinda, badakit ni zein naizen»



FITXA TEKNIKOA

Izenburua: Unbreakable **Urtea:** 2000

Zuzendaritza: M. Night Shyamalan

Gidoia: M. Night Shyamalan

Musika: James Newton Howard

Aktoreak: Bruce Willis, Samuel L. Jackson, Robin Wright, Spencer Treat Clark, Charlayne Woodard (...)

Argazkia: Eduardo Serra

Iraupena: 1h 46 min

Zahartzaroaren maparen bila

Arantza Urretabizkaia



Zahartzaroaren inguruko saiakera bat da Urretabizkaia azken liburu hau. 2022an argitaratutako "Azken etxea" eleberrian zahartzaroa jorratzen badu ere, oraingo honetan, fikzioa alde batera utzita, gaiaren inguruko hausnarketa eskaintzen digu. Zahartzaroari buruzko liburua da, beraz, aipagai duguna, eta batez ere "muga guztiak kontuan izanda ere maila handi batean geure buruaren jabe izan nahi eta ahal dugun zaharroi buruzkoa".

Bide horretatik, Urretabizkaia bizitzako aro horretan sortzen diren zalantzak, beldurrak, aurkikuntzak eta kontraesanak partekatzen ditu, eta irakurlea bere esperientzia propioaz gogoeta egitera gonbidatzen du. Era berean, zahartzaroaren idealizazioa eta dramatizazioa saihesten ditu, eta eguneroko bizitzatik abiatuta

erakusten du nola aldatzen diren gorputza, harremanak, denboraren pertzepzioa eta norberaren identitatea. Halaber, hori guztia emakumeen ikuspegitik eta egoeratik aztertzen du, gizarteak emakume zaharrak ikusteko eta epaitzeko moduan arreta jarritz.

Liburuak irakurleari galdera ugari uzten dizkio: nola prestatu zahartzaroa? Zer esan nahi du autonomia galtzeak? Zergatik lotzen dugu maiz zahartzaroa gainbeherarekin? Zer egin dezake gizarteak adinkeria gainditzeko? Erantzun itxirik eman gabe, egileak hausnarketarako bideak irekitzen ditu, eta modu horretan, kontraesan semantikoa gaindituta, zahartzaroari buruzko ikuspegi berritzaile eta eguneratua aurkezten digu Urretabizkaia.

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza 3-4, behea
 31 postakutxa
 20820 DEBA
 Tel. eta faxa: 943 192 249
 Mob. 629 639 685
 629 641 940
 sagarmina@sagarmina.com
 www.sagarmina.com

Iñaki Agirregomezkorta Arreitunandia «Tolon»

Bizitzan gehienak momentu onak dira

Itsasoko familian sortua. Itsasoan urte batzuetan jardun arren, lehorrean eman du bizitzaren zati handiena. Arrantza izana, tabernari ezagutu dugu aspaldiko urteetan. Taberna batzuetan hartu ditu mutrikuarrak Iñakik, eta barrak ematen duen konplizidadean makina bat istorio jaso eta gorde ditu. Lehengo taberna-girotik gaurkora egon den aldaketa ulertzen lagundu digu.

Umetan itsasoa oso hurbiletik bizi izan zenuen...

Familia mutrikuar itsastar batekoa naiz, eta etxean denok izan dugu harremana itsasoarekin. Gizonak, arrantza, andrak eskabetxean, sare konpontzen... eta gu umetan moilan eta barkuetan sartuta denborapasa eta jolasean. Portura ailegatu eta deskargan jarduten zutenean, gu barkuan sartu eta Candido Urkizak otartekotxoak ematen zizkigun eta entretenitzen gintuen. Txikitatik arnastu dugu kresala gurean.

Mutrikuko eskolatik kanpora estudiatzera...

Zabielen Merzedarioetan ikasten genuenean fraide bat etorri zen klaretarrekin ikastera joan nahi zuten gazteen bila. Ni apuntatu, eta Agurainen eman nituen ondorengo hiru urte, "interno", orduko EGBko 6., 7. eta 8. mailak egiten. Handik, orduko BUP egitera Leioako Askartza klaretar ikastetxera aldatu nintzen, "interno" orduan ere. Etxetik kanpo bizitzen nekatuta, BUPeko 2. eta 3. mailak Ondarruko Institutuan egin nituen.

Estudiotan trebea izanda, ez zenuen ikasten jarraitu?

Bai, trebetasuna nuen ikasketetarako, baina BUP amaitutakoan erabaki nuen ikasten ez jarraitzea. Hala ere, Arrantza eskolan ere ibili nintzen Pasaian, baita patroï titulua atera ere, baina ikasten jarraitu nahi ez, eta orduan aitak esan zidan «estudiatu nahi ez badezu, nerekin itsasora!». Halaxe, estudioak utzi eta itsasoan hasi nintzen. Aitak mehatxu moduan esan zidan, gauza txarra zelakoan, baina ni gustura itsasora!

Itsasoko urteak...

Oroitzapen onak ditut itsaso garaikoak. «Txalopa mutil» hasi nintzen Udaberrin, aitaren itsasontzian, eta sei urte eman nituen bertan, tartean egindako soldadutzako denbora kenduta. Atuneta garaian portutik irtetea izaten zen gogorra: lagunak danborrean trajebainuan eta norbera itsasora hamabost egunerako. Baina kosta begi bistatik galtzen genuenean, listo. Hamabost egunetan hamabost gizonen arteko elkar bizitza gogorra da, baina asko ikasten da pertsonen arteko harremanetan. Bizitzarako oso baliagarria gertatu zitzaidan esperientzia hura. Une txarrak ere tokatuko zitzaizkidan, jakina, baina, zalantzarik gabe, une onak gehiago izan ziren, gehienak. Itsasoko garaiko jendearekin harreman



Iñaki, danborrada egunean

oso ona izaten jarraitu nuen gero ere. Zoritxarrez, haietako gehienak hilda daude. Ni orduan gaztea nintzen eta...

Itsasoan, anekdotak hamaika...

Sukaldariari laguntzen egoten nintzen barkuan, eta oilaskoa tokatzen zenean egun handia izaten zen, manjarra. Kazerola baten oilaskoa eta beste kazerola baten patata frijituak. Nik, oster, bi arraultza frijitu patatekin. Tripulazio guztia kazerolen inguruan oilasko janean niri begira harrituta. Ni atzean, bi arrautza frijitu patatekin jaten. Ia ba! Neuk garbitu nituen oilaskoak, baita lizun mordoa kendu ere!

ARRIETA
AUTOZERBITZUA



Aliprox

J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

BERISTAIN

PAPERDENDA ETA ESTANKOA

Barrenkale, z/g
943 60 35 44

Soldadutza Galizian...

Lehenengo hilabeteak Ferrolen eta ondorengoa Vigon eman nuen. Korneta nintzen, eta «cornetín de órdenes» jotzen nuen. Jo, eta denak firme ipintzen nituen ba! Denbora luzea soldadutzakoa, eta hangoak ere oroitzapen oso onak gehienak. Handik ere bizitzarako gauza asko ikasi.

Arrantzatik, tabernara...

Soldadutzatik itsasora bueltatu nintzen, nire eginkizunetara. Orduan amari Batzokiaren ardura hartzea eskaini zioten. Amak, berak bakarrik ezetz, baina nik laguntzen banion, hartuko zuela. Halaxe hartu genuen Batzokia 1986 urtean, artean hogeita lau urte neukala.

Itsasoko lana ez da gozoa, baina Batzokian ikasi nuen tabernakoa ere lan gogorra dela. Orduan gaztea nintzen, eta kostatu egin zitzaidan tabernako martxari lotzea. Ordutegi zabalak, ordu asko, lan mota asko, asteburuetan lana... Nire tokia ezin hartuta nenbilen sasoi hartan Aitor Andonegi etorri zen tabernan laguntzera, eta neuri ere laguntza handia eman zidan nire tokia hartzeko... tabernan eta bizitzan.

Duela berrogei urte tabernetan beste martxa bat zegoen, eta Batzokian ere bai. Orduan alderdi-giroa zegoen eta egunero ibiltzen zen alderdiko jendea tabernan eta goiko pisuan. San Inazio eguneko bazkaria eta hauteskunde egunetako gauak gogoan hartzekoak izaten ziren!

Taberna batetik, beste batera

Gaisorik zegoen aitona zaintzeari lehentasuna eman zion amak, eta Batzokia lagatzea erabaki. Ordurako, Julian Gandiaga Atilatxotik Kilox tabernara aldatzekoa zenez, Atilatxo neuk hartzeko tratua egin nuen. Batzokiko garaian elkarrekin lan egindako Josefina Ruiz eta Nerea arreba etorri ziren Atilatxon laguntzera, baina taberna dagoen tokian egonda, zaila gertatu zitzaigun aurrera egitea, eta lagun batzuek, Valentin Zumalabe aurrean, lagundu zidaten aurrera ateratzen. Garai hartan harreman estua nuen Jose Luis aita-semeekin, eta Atilatxoko zailtasunak baztertu eta Ametzanarako proposamena egin zidaten. Hala, 2001 urteko lehenengo egunean Ametzanean hasi nintzen, eta gaur arte, 25 urte pasa, jubilatua naizenera arte. Oso eskertuta egon naiz beti, eta egongo naiz, lagun haiek eman zidaten laguntzarengatik, bai barra barrutik bai barra kanpotik.

Ametzanean 25 urte egin ostean, esan ahal dut familiako bat gehiago sentitu naizela eta hala hartu nautela. Eta bezeroekiko bizipenetan, itsasokoetan zein soldadutzakoetan bezala, tartean txarrak ere izan arren, gehienak onak izan dira.

40 urte pasa tabernako lanetan emanda, aldaketak ere somatuko zenituen ba...

Hiru aldaketa nabarmen aipatuko nuke: Erretzearen debekua, Pandemia garaia, eta tabernatik jatetxerako jauzia.

Taberna barruan erretzea debekatu zenean, askok pentsatu genuen hura galbidea izango zela. Ametzanean bazkalondoko karta-jokoa eta «kafe konpletoa» oso garrantzitsuak ziren negozioarentzat, eta pentsatu genuen hori gabe gaizki beharko



Iñaki, Atilatxoko barran

genuela. Ez zen horrela gertatu, baina. Egokitzen asmatu genuen eta beste negozio-bide batzuk agertu ziren.

Pandemia garaian ere asko sufritu genuen, baina handik bueltan jendeak beste ohitura batzuk hartu zituen eta tabernaren kanpoaldeaz, terrazaz, gozatzen ikasi zuen.

Aurrekoekin lotuta, Ametzak taberna izaera hutsetik jatetxe izaera hartzera pasatu da. Jendeak egunez gozatzen ikasi du, eta lehenago plan nagusia afaria zena, gaur egun bazkaria izatera pasatu da, bazkalondo luze batekin. Ametzanean sukaldeak aurrea hartu dio barrari

Gaztetatik izan zenuen bikotea...

Josune. Gaztetatik hasi ginen elkarrekin ibiltzen, eta berrogeita hamasei urterekin hil zen arte ibili ginen. Ez ginen elkarrekin bizi izan, baina bikote-harreman berezi baten pozik eta zoriontsu bizi izan ginen. Lagun handia izan zen bizitzako nire ibilbidean.

Etorkizunera begira...

Bizitza ikastea dela esaten da, eta denbora libre izango dudan honetan, beldurrik ez diot ikasteari. Oraindik ere jendeak bazkariak eta enkargatzeko deitzen dit, baina ikasiko dute haiek ere beste telefono batera deitzen. Eguneroko bizitzan... dagoeneko hasita nago zapata azpiak gastatzen, eta azaleko kolorea ere... noiz izango ote nuen horrelako beltzaran!

Ametzaneke mahai baten agurtu dugu Iñaki, oraindik ere pentsamendua tabernako zereginetan duela, bati eta besterik aholkuak eskainiz, egin beharrekoak gogoratuz...

Goitibehera Taberna

Errazioak / Entsaladak
Plater konbinatuak
Bokatak

943 004 935

Atxitxin kalea 20. Mutriku

Subeltz

ETXERAKO ZERBITZUA

602 070 478
943 901 465

Atxitxin kalea 10. Mutriku

Ezohiko erregularizazioa: ekainaren 30aren ondoren, zer?

2026ko ekainaren 30ean amaitu zen ez-ohiko erregularizazio prozesurako eskaerak aurkezteko epea. Azken hilabeteetan, pertsona askok aukera hori baliatu dute urte luzez paperik gabe bizi ondoren egoera administratiboa erregularizatzeko. Mutrikun ere prozesuak eragin handia izan du: Udalak 55 zaurgarritasun txosten egin ditu, eta hainbat herritarrek laguntza jaso dute tramiteak prestatzen eta aurkeztean.

Prozesu honetan hainbat eragileren arteko elkarlana funtsezkoa izan da. Udaleko Gizarte langileek, Berdintasun eta Gizarteratze teknikariak eta Aholku Sarea-ko SOS Arrazakeriak modu koordinatuan jardun dute, informazioa ematen, dokumentazioa prestatzen eta tramiteak egiten laguntzen. Herritar batzuek ere laguntza eskaini dute, txostenak betetzen, hitzorduetara laguntzen edo eguneroko zalantzak argitzen.

Baina orain beste fase garrantzitsu bat dator.

Ebazpena iristen denean

Datozen hilabeteetan Administrazioak eskaerak aztertuko ditu. Ebazpena aldekoa bada, pertsonak urtebeterako bizileku eta lan baimena jasoko du. Horrek esan nahi du modu ofizialean bizi eta lan egin ahal izango duela, bai besteren kontura bai autonomo gisa.

Horrek askorentzat eguneroko bizitzan aldaketa handia ekarriko du: kontratu legal bat izatea, Gizarte Segurantzaren alta ematea, etxebizitza bat alokatzeko aukera handiagoa edo administrazio tramite arruntak normaltasunez egitea.

Ebazpena aldekoa denean, beste urrats bat ere egin behar da: hilabete epean Atzerriarraren Nortasun Txartela (ANT) eskatu behar da dagokion Polizia Nazionalaren komisarian. Txartel hori izango da hemendik aurrera egoera administratibo erregularra egiaztatuko duen dokumentua.

Eta urte horren ondoren?

Urtebeteko baimena ez da behin betikoa, denbora horretan pertsonak bere egoera administratiboa sendotu behar du, ondoren baimena berritu edo beste egoitza mota batera pasatu ahal izateko.

Horregatik, urte horretan oso garrantzitsua izango da:

- Lan egitea eta kotizatzea.
- Kontraturen bat izatea, nahiz eta aldi baterakoa izan.
- Ikastaroak edo prestakuntza egitea.
- Enplegu zerbitzuetan izena emanda egotea.
- Dokumentazio guztia gordetzea.
- Gizarte zerbitzuekin edo aholkularitza juridikoarekin harremanean jarraitzea.

Administrazioak ez du beti baldintza bakar eta zehatz bat aplikatzen; kasu bakoitza banaka aztertzen da. Horregatik, lanaldi partzialak, tartekako kontratuak edo prestakuntza

prozesuak ere kontuan har daitezke. Helburua da pertsona hori benetan hemen bizitza egonkor bat eraikitzen saiatzen ari dela erakustea.

Zer gertatzen da lanik aurkitzen ez bada?

Hori izango da pertsona askoren kezka handiena. Lan egonkorrik aurkitzen ez bada, berritzea zailagoa izan daiteke, baina horrek ez du automatikoki esan nahi baimena galduko denik. Administrazioak beste egoera batzuk ere baloratzen ditu: familia loturak, zaurgarritasun egoerak, egindako ikasketak edo integrazio prozesua. Horregatik, garrantzitsua izango da urte horretan aktibo mantentzea: ikastaroak egitea, enplegua bilatzen jarraitzea, egindako ahalegina dokumentatzea eta laguntza sareekin harremanetan egotea. SOS Arrazakeriako Aholku Sareak, gizarte zerbitzuek eta inguruko laguntza komunitarioak orientazioa eskaintzen jarraituko dute prozesu honetan.

Hala ere, urte osoan lanik edo diru-sarrerarik lortzen ez bada, eta egoera justifikatzen duen beste elementurik ez badago, urte bateko luzapena eskatzeko aukera egongo da. Seguruenik, eskatuko den baldintza bakarra Lanbiden alta emanda egotea izango da. Oraindik ez dute argitu zenbat luzapen eskatu ahal izango den. Beraz, komenigarriena lanean hastea izango da. Bestalde, 67 urte baino gehiago dauzkatela edota ezgaitasunen bat pairatzen dutela frogatzen badute, zuzenean 4 urteko baimena lortzeko aukera izango dute.

Horregatik, erregularizazioa ez da prozesuaren amaiera. Askorentzat lehen aldiz ate bat irekitzea da: beldur gutxiagorekin bizitzeko aukera, etorkizuna planifikatzeko aukera eta hemen bizitza duin bat eraikitzen hasteko aukera. Baina bide horretan laguntza sareak, orientazioa eta herriaren babesa funtsezkoak izaten jarraituko dute.



ZELAIETA JATETXEA
Olatz auzoa · Mutriku · 943604595
zabalik asteburuetan
eta jai egunetan

ISLADA fisioterapia

Joan Busqué eta Oihana Aizpurua gara.

Fisioterapia, Pilates, Hipopresiboak eta Antigimnasia eskaintzen ditugu.

Arreta pertsonalizatua, gertutasuna eta etengabeko formakuntza dira gure lan egiteko moduaren oinarria. Helburua: mina hobeto ulertzen laguntzea eta mugimenduaren bidez zure ongizatea hobetzea.

Zure gorputza zaintzeko, zatoz **Islada Fisioterapiara**.



TXIMAK ile apaindegia

60 urtez gure bezeroen zaintzan eta edertasunaren zerbitzuan.

Ile mozketan, kolore teknika aurreratuetan eta tratamendu berritzaileetan azken joerak eskeintzen ditugu, betiere zure beharretara egokitutako aholku pertsonalizatuarekin.

Edertasuna ikuspegi organiko, natural eta errespetuzko batetik ulertzen dugu, zure ilearen osasuna lehenetsiz.

***Esperientzia, profesionaltasuna eta gertutasuna zure ilearentzat.



JOSEBA IÑAKI masajeak

Abuztuan 25 urte beteko dira Mutrikan jardun honetan hasi nintzenetik, masajeak eta osteopatia lantzen Konde kaleko lokalean. Ordutik, jendearen bizi kalitatea hobetzeko egunerokotasunean agertzen diren min eta molestia horiek kentzea edo arintzea da nire helburua.



IRIPE elektrotresnak

1960 urtean ireki zuen Benjaminek elektrizitate denda, Konde kaleko lokalean. Ondoren, Maria Angeles emaztearekin lehenengo eta Xabier semearekin ondoren, IRIPE elektrotresnak dendarekin jarraitu dute, Konde kaleko lokal berrian. Etxerako elektrotresna guztiak esku-eskura, eta elektrizitate zerbitzuak ere bai.



Garia:

guztion ahotan zebilen zereala

Garagarrila edo uztailla, uzta batzeko hila. Mende luzez, sasoi honetan, ez zitzairen lanik falta Mutrikuko baserritarrei. Zazpi hilabete lehenago ereindako galburu mardulak biltzeko gogoz egoten ziren, izan ere oinarri-oinarrizko jatekoa zen garia, ogi-irina eta ogia. Baina horretarako lan egin behar! Amorotoko Irarreta baserrian irakur daitekeen inskripzioak garbi azaltzen du: «Eguiten badoc bierra, jango doc ogia» (1754. urtea).

Maiatzeko artikuluan txori ezagun bat aipatu genuen: *larretxoria* ('kurloia, txolarrea'). Ez da hori gure herrian duen izen bakarra, izan ere Astigarribian behintzat *gari-txoria* ere esaten diote. Betetxeko Andres Txurruka zenaren hitzetan, *gari jatailliak izeten ditzuk horrek, hamen eleizako paretetan-da ibiltzen diran honek, gari-txorixak*.

Gaur egun, ezinbestean, beste zeozerekin konformatu beharko dira txoriok, gure inguruan nekez ikusiko dugu-eta gari-sororik.

Gari-txoriak ez ezik, hanka biko txoriak ere garizaleak izan gara betidanik. Baina garia ez zen berez etortzen, ez horixe! Sasoiari sasoiko lana egin behar izaten zuten gure aurrekoek ganorazko uzta jasotzeko.

Lurra prestatu eta hazia erein

Zemendiaren erdialdean hasten ziren gari-lanak. Aurretik artoa egondako tokian ereiten zen garia. Artoa kendu eta gero, lehenengo egitekoa lursailak garbitzea izaten zen, horretarako area erabiltzen zuten —*arado llano de 24 dientes o puas*—; ondoren, lurra ebakitzen zuten, *goldatu*; horren atzetik, lurra *laiatu* egiten zuten; gero, eskuetan aitzurra hartuta, lurra berdindu eta puskatzen zuten, *atxur txikitxu*; amaitzeko, berriz ere, *area* pasatzen zuten.

Natalio Belaustegi "Noizbait" idazleak honela eman zuen ereinaldiaren berri: *baserritarrak jota kia ari dira garia botatzen; egualdiak ere eurak nai bezelakuak egiten die* (Argia, 1930-11-30).

Garia erein aurretik, batzuek karearekin nahasten zituzten aleak; beste batzuek, berriz, tartetxo baten edukitzen zituzten ur irakinetan. Erein ondoren ere, lurra berdintzeko, area pasatzen zuten.

Soroak jorratu eta bedeinkatu

Garai batean, horretarako aukera zutenek simaurra botatzen zioten gariari martian. Baina askoren esanetan ez zen komeni garia simaurtzea, izan ere gehiegi hazten zen eta sasoi bano lehenago jausten zitzaizkion galburuak. Simaurtuz gero, ondoren *area* pasatzen zen eta eskuarearekin berdindu.

Apiril amaieran «garbiketa» egiten zuten gari-sailetan: batetik, eskuz, belar txarrak (oloa batez ere) kentzen zituzten; eta, bestetik, sailak jorratzen zituzten aitzur txiki batekin (*jorraixa*). Handik bi hilabete ingurura, berriz ere kentzen zituzten oloa eta bestelako belar txarrak. Garrantzitsua zen belar txarrak kentzea, egin ezean euren haziak gari aleekin nahastu zitezkeelako garia jotzen zenean.

Uzta onak izateko eta Goikoaren laguntza eskatzeko, apirilaren amaieran edo maiatz hasieran, herriko abade batek gariak bedeinkatzen zituen. Ordainetan baserritarrek oilaskoa edo bestelako produkturen bat ematen zioten.

Bedeinkapen horren aurretik, Santakutz egunean, Erramu egunean bedeinkatutako gurutze txikiak sartzen zituzten baserriko soro banatan, gari-sailen bereziki. Batzuek egiteko hori San Isidro inguruan egiten zuten. Helburu nagusia: laguntza eskatzeko garia ondo burutzeko (gari-burua ondo garatzeko).

Garia ebaki

Hilabete luzez landareak hazten eta edertzen ikusi eta gero, garia

ebakitzeko sasoi ailegatzen zen, San Pedro egunaren inguruan edo garagarril hasieran izaten zen hori. Zeregin horretarako, hagin dun igitia erabiltzen zuten. Ebaki ahala, grak!, azaoak egiten joaten ziren. Azao bakoitzeko bi eskutada gari. Egurrezko ziri batekin lotzen zuten azaoa, normalean gizonezkoek ebaki eta emakumezkoek lortu. Azaoa lotzeko garia besoan hartu eta lau-bost gari hartuta inguruan buelta ematen zitzairen eta galtzarbera, ziriarekin korapiloa eginez bezala kateatzen zen azaoa. Ziria hurritzekoa, akaziazkoa —alkazixa— zein okaran egurrezkoa izan zitekeen.



Astigarribia

Azaok soroan uzten ziren, lur gainean, ilara bat osatuz. Ihartzen joaten ziren, eta ondoren pilo edo meta koskorak egiten zituzten bertan, 10-20 bat azaokoak, ihartzen segitzeko eta euriak harrapatuta ere ez kaltetzeko. Erdian tontortxo eta buelta zabala. 15 bat egunez egoten ziren han. Denbora hori pasatutakoan gurdian hartu eta etxe ondora eramaten zituzten azaoak, bertan meta handiak egiteko.

Gari-jotzea

Meta handi haiek egin, eta egun gutxitara garia jotzeko ordua heltzen zen. Baserri aurreko larraina izaten zen lan horretarako leku aproposa. Zelai pusketara lau zen larraina, baina garia jotzeko prestatu behar izaten zuten: ondo zapaldu, aitzurrarekin berdindu eta txilarrezko erratz batekin ondo garbitu.

Galburuak galburuen kontra jarri eta *txibitxia* izeneko tresnarekin astintzen zuten sasoi batean. Txibita larruzko uhal batekin lotutako bi makilak osatzen zuten, bata hurritza (heltzekoa) eta bestea gorostia. Babak eta indiarrak jotzeko ere erabili izan da baserrietan, baita kotoizko koltxoak astintzeko ere.

J.M. Barandiaranek Mutrikun ikusi eta entzundakoak gogoan, hau idatzi zuen 1928. urtean: *en ella [Iarraña] se desgranaba antes el trigo golpeándola con mayales*.

Baina Ataungo jakintsuak beste sistema baten berri ere eman zigun: "Hoy se desgrana en casa, golpeando las gavillas contra una losa de piedra". Horixe bera azaldu diguten hainbat mutrikuarrek. *Txanketia* esaten zioten harrizko lauza horri. Arropak jotzeko erabili izan direnen modukoak ziren, zabalak. Azaoa gogor astintzen zuten okerdura pixka bat emanda jartzen zuten lauza haren kontra, bristi-brasta, harik eta alea soltatu arte. Hura ere normalean larrainean egiten zen, baina bazeuden



Galburuak



Gari-lanetan

beste toki batzuk ere lan hartarako: baserriko ganbaran, baserriaren sarrera edo *entradan*...

Kalean ere egiten zen gari-jotzea. Adin batetik gorakoek gogoan edukiko dute, sasoi batean, Mutrikuko kale-baserriarrek, auzolanean, garia jotzen zutela herriko pilotalekuan. Madalen jaietako pilota-partiduak amaitutakoan egiten zuten, garagarriaren 26tik aurrera. Goiko plazan ere jo izan dute garia, bai kontzejupean, bai plaza bazter batean ere.

Alea jalkitzean nahasian egoten ziren gari-aleak, ahotza (*arotza*) eta lastoa. Gero haiek bereizi behar izaten zituzten.

Baina, sistema modernoago bat ere ailegatu zen: garia jotzeko makina. Hasieran eskuz eragitekoa zen, eta gero motorduna ere heldu zen, *matxakia*, danbor handia zuena. Azken hori arriskutsua izan zitekeen, eta entzun dugunagatik lagun bati baino gehiagori atzamarra edo besoa harrapatu izan zien. Etxerik etxe ibiltzen zen makina hura. Aspaldi garia garbitzeko haizea erabiltzen zen: garia gora bota eta haizeak alea eta ahotza bereizten zituen. Aurrerago, *tornua* edo *abentadora* heldu ziren.

Kalixto Basterretxea "Itxas-Aurre" berriemaileak giro hura jaso zuen bere kolaborazioetako batean: *gariak ebaki ondoren jotzen ari dira gure baserriarrak ta entzuten degunez oso urte ona ei dute* (Argia, 1929-08-04)

Gari guztiak ez ziren sasoi berean etortzen. Mutrikuko auzo batzuk besteak baino altuago daudenez uza pixka bat atzeratzen zen. Ibirikoak, esaerako, Mijoko gari-sailen aldean, zortzi bat egun geroago heltzen ziren.

Gari klase bat baino gehiago zegoen. Horietako bat, esate baterako, goiz-garia zen, bizartsua; gainerako klaseak baino 15 egun edo hilabete lehenago ebakitzen zen.

Zahia ganaduentzat eta irina gordetzeko

Gari landaretik den-dena aprobeitza zitekeen: ahotza, birrina, zahia, lastoa eta gari-alea.

Zahia ganaduei ematen zitzairen, txerriei-eta; oiloei, berriz, birrina. Kapoei ematen zitzairen zaperoari (patata eta arto-irina) batzuek zahia gehitzen zitoten.

Baserri gehienetan egiten zen ogia sasoi batean. Edonoiz eraman zitekeen garia errotara behar zen irina eskuratzeko. Gari-kutxetan gordetzen zen garia. Mutrikun entzun dugunez, kutxa haietan kokorik ez azaltzeko intxaur hostoak sartzen ziren gari tartean.

Lastur aldean garaia ('hórreos') egon ziren, eta eraikin

horien goiko pisuan gordetzen zen garia eta gainerako zerealak. Barandiaranek dokumentatu zuenez, XX. mende hasieran Mutrikun ere egon zen horrelakoren bat Sakoneta baserrian: *al lado del caserío «Sakoneta» existe una casita bastante reciente, que consta de planta baja y un piso, llamada «Etxetxu»: en la planta baja desgranar el trigo y en el piso lo conservan; es, pues, un hórreo de construcción moderna.*

Gariaren hamaika erabilera

Garia eta bere zatiak gauza askotarako erabili izan dira Mutrikun. Garrantzitsuena, jakina da: irina eta ogia egiteko. Horrez gain, etxeko errenta edo alokairua ordaintzeko ezinbesteko ordainbidea izaten zen alde aurretik adostutako gari-anege kopuru jakin bat.

Aparteko erabilera batzuen berri emango dugu:

- San Joan txortan, baratzeak, soroko eta mendiko beste landare eta adar batzuekin batera, baserriar askok galbururen bat sartzen zuten.
- Etxeko txerria hiltzen zenean, gari-lastoa erabiltzen zen txerri-ileak erretzeko. Aurrerago, garia lantzeari laga zitzaien, garo iharra erretzeari ekin zitoten.
- Oholak norberak nahi zuen neurrian ebakitzeko, lastoa erre eta harekin haria belzten zuten oholak markatzeko.
- Linternarik ez zegoen sasoiaren, gauez, muturrean sua piztutako lasto-azaoak eskuetan hartuta ibiltzen ziren batera eta bestera.
- Ganaduei azpiak egiteko ere erabiltzen zen lastoa.
- Astoei bizkarrean jartzen zieten txalma zaku handi bat izaten zen, barruan gari-lastoa zeukana.
- Garatxoak kentzeko erremedioetako batean garia erabiltzen zuten: gari-aleekin garatxoa ondo igurtzi eta inork ez zekien tokiren batera botatzen zuten (zingira batera, putzu batera...), aleak usteldu ahala garatxoak desagertzen joaten ei ziren.
- Baserriko tximinia garbitzeko batzuek gari-azaoak erabili izan dituzte: garia ebaki eta tximinia-zuloaren neurriko koadratua egiten zuten, gero, kate bati lotuta gora eta behera erabiltzen zuten, harik eta tximiniako kedar guztia kendu arte.

Mutrikuko "Mendi-Arno" idazleak lanaren eta esfortzuaren metafora gisa erabili zuen garia: *garia artu nai-badezu, zabaldu egizu lenbizi azia* (Euzkadi, 1928.11.11).

Josu Larrañaga Arrieta



Joseba ZIZZO TAXIA · 688681013



MUTRIKUKO ENERGIA KOMUNITATEA

HARRERA

ETXERATZE BIDEA ERRAZTEKO ELKARTEA



Euskal Herrian espetxea, erbestea edota deportazioa pairatu duten emakume zein gizonezkoen gizarteratzean laguntzeko sortu zen **Harrera Elkartea** 2012 urtean. Pertsona hauek gizarteratze-prozesua errazagoa izan dezaten eta duintasunez bizitza berri bat eraikitze bidean, beharrezkoak diren bitartekoak eskaintzen saiatzen gara. Mutrikun orain gutxi eskainitako hitzaldian azaldu zen moduan, pertsona bakoitzaren beharrak desberdinak dira eta, horregatik, bakoitzari neurriko trajea egiten saiatzen bagara ere, oinarrian lau dira lan lerro nagusiak:

- Juridiko administratiboa: Lan administratibo eta juridikoari dagokienean, espetxetik atera zein erbestetik herriratu den pertsonak, bere gizarteratzean baditu hainbat izapide administratibo egiteko: Gizarte Segurantzaren alta eman, lan egiteko adinean ez badago bere kotizazioa aztertu, nortasun agiria eta gidabaimena berritu, erroldatu, osasun txartela atera, pentsioa edo dirulaguntzak jasotzeko eskubidea izan dezan aholkatu...
- Osasuna: Espetxean jasotzen den mediku arreta edo erbestean lortu daitekeena eskasa izaten da. Horrek suposatzen du espetxetik atera edo erbestetik bueltatzen direnak gaixotasunekin itzul daitezkeela. Horregatik, osasungintza publikoan jasotzen duten arretaz aparte, beste profesional batzuen laguntza eskaintzen du **Harrerak** (oftalmologoak, dentistak, psikologoak...).
- Laguntza ekonomikoa: Espetxetik atera edo erbestetik bueltatzen direnak ondarkerik gabe itzultzen dira. Egoera honi aurre egiteko, **Harrera Elkartea** laguntza ekonomikoa eskaintzen die lehenengo hilabete horietan. Espetxealdiko eta erbesteratutako urte luzeek pertsona asko utzi dituzte eta utziko dituzte erretiroa hartzeko beharrezkoa den gutxienekoa bete gabe. Kotizazio falta eta gero eta adin aurreratuagoak

egoera oso prekarioak uzten ari dira. Halako kasuetan laguntza ekonomikoa ez da hilabete batzuen kontua, urteetakoa baino.

- Lana: Bizitza duin bat garatu ahal izateko, lanpostu bat ezinbestekoa da. Lana egiteko adinean herriratzen direnei, lana topatzen laguntzen die **Harrerak**. Hori, hainbat enpresarekin **Harrerak** dituen hitzarmenen bidez eta bakoitzaren kurrikulumak aztertu ondoren, preso bakoitzaren gaitasunaren arabera laneratzeko programak garatuz burutzen du.

Esan bezala, egoerak oso desberdinak dira: batzuek laguntza puntuala behar izaten dute, beste batzuek bizi artekoa; batzuek lerro bakar batean behar izaten dute, beste batzuek lerro anitzeko laguntza. Batzuk, kalean urteak pasa ostean gerturatzen dira laguntza bila, gutxieneko pentsioa eskuratzeko gutxieneko 15 lan urteetara iristen ez direlako, adibidez.

Pentsio faltaren arazoa epe ertainean handitu egingo da, gaur egun lanean egon arren, gutxieneko pentsiora iristeko urte kopuruetara iritsiko ez den lagun asko baitago. Nola iritsi, espetxean 20 urtetik gora pasa baldin baditu!

Horretarako dago **Harrera**, etxeratzean egoera hauek guztiak pairatu dituztenei oinarritzko bizi baldintza batzuk eskaintzeko.

Hau guztia **Harrera** babesten duten 5000tik gora bazkideei esker garatzen da, eta beharrak, esan bezala, handituz joango dira ondorengo urteetan.

Espetxeak hustutzen doazen neurrian, **Harreraren** lana neurri berean hazten doa.

Gatazka politikoaren ondorioak ere badira preso, erbesteratuetadeportatueneegoera, ondorioz bizikidetzaren eraikuntzan ezinbestekotzat jotzen dugu hauen beharrei eta egoerei erantzutea. Hori administrazioaren lana dela sinesten dugu, baina bitartean hor egongo da **Harrera**.

Honetan guztian lagundu nahi baduzu, egin zaitez bazkide **Harrera Elkartean**!

SARE HERRITARRA

Aurtengo udan 12 urte dira Sare Herritarra sortu zenetik Donostiako San Telmo museoaren atarian. 12 urte hauek, dagoeneko gehiegi luzatu den eta gehiago luzatu ezin daitekeen auzi baten aurrean jartzen gaitu: Euskal preso, iheslari eta deportatuen auzian edota oraindik, aitortzarik jaso ez duten biktimen auziaren aurrean.

12 negu eta 12 uda daramatzagu horrenbeste urtez horrenbeste sufrimendu eragin zuen auzi bati behin betiko konponbidea emateko garaia dela aldarrikatuz, eta aurtengo udan ere, orain arteko bide beretik, auzoz auzo eta herriz herri arituko gara konponbidearen, bakearen eta elkarbizitzaren alde lanean.

Ekainaren 6an Arrasateko Monterron parkean egin genuen agerraldi jendetsuan esan genuen moduan, Sare Herritarra ez zen betikotzeko sortu, baizik eta Sareren sorrera bultzatu zuten arrazoiak konponbidea ahalik eta lasterren eskuratzeko. Aipatu genuen datozen hilabeteak erabakigarriak izango direla etxeratze prozesuari dagokionean eta urtarrilaren 9ko manifestazioa azkena izatea nahi dugula, justuki, azkena izan beharko lukeelako.

Hala ere, aurtengo udan, orain arteko bidean berretsi eta orain 12 urte hartutako konpromisoak ekarri nahi ditugu gogora: lanean aritu gara, ari gara eta arituko gara euskal preso, iheslari eta deportaturik gabeko Euskal Herria ezagutu arte eta horretarako ezinbestekoa izango da datozen hilabeteetan ere etorkizunari begira urratsak ematen jarraitzea.

Urrats horiek ematen jarraitzearen ardura kolektiboa da, ezin dezakegu utzi ardura eta esfortzu guzti hori herritarren esku eta instituzioetatik zein alderdi, sindikatu eta eragileetatik ere ardura kolektibo horretatik jardun behar dugu lanean.

Aipatu dugu gehiegi luzatu dela jada eta ezin onartu dezakegula urte gehiagor luzatzea dagoeneko sufrimendu izugarria eragin duen eta eragiten jarraitzen duen auzi baten konponbidea. Beraz, jar gaitezen lanean udan zein datozen hilabeteetan azken urteetan izan dugun aldarrikapen uholde handienarekin. Har ditzagun auzo eta herrietako kaleak konponbidearen alde, hain zuzen, 2027ko urtarrilaren 9an Bilbok HELMUGA izan behar duelako. Urtarrilaren 9an Bilbo txiki utzi behar dugu.

Eta Bilbora iritsi aurretik izango dugu Mutrikun ere aukerarik aldarrikapen honekin bat egiteko:

UZTAILAK 23

DENAK ETXERA eguna

13:00 TOPA!

15:00 BAZKARI HERRIKOIA
ondoren, KANTALDIA

ABUZTUAK 2

HONDARTZETAKO

MOBILIZAZIOA

11:30 Saturrango aparkalekuan
elkartuta, ondoren, Ondarruko
zutabearekin bat egin.

EUSKAL PRESO, IHESLARI ETA DEPORTATUAK ETXERA!



....ZORIONAGURRAK....



ANDER

Eskerrik asko zean bezelakua izatiarren!
Zorionak Ander 9 bider etxeko danon partez!!



NORA

Zorionak gure etxeko printzesari! Uztailaren 18an, 6 urte haundi! Ederto pasa ta mila muxu potolo familia osoaren partez!




NARE

Zorionak Nare!!! Uztailak 24an 10 urte!!! Jarraitu orain arte bezelako jator eta alaia izaten!!! Matxe-matxe!! Etxeko danon partez!!



EKHI

Malen txiki egunean Ekhi 8 urte. Etxeko denon partez Zorionak!! Segi bizipoz horrekin beste hainbeste urtez (gutxienez)



IERA

ZORIONAK IERA! Zorionak sorgintxu! Ondo pasa zure eguna. 3 muxu potolo Jule, Ekhi, Enetz, ixiko, osaba, atxona eta aumen partez



LAIA eta ANDRES

Zorionak aitxona ta Laia! Matxo haundi bana etxekoen partez



MARITU

Zorionak Maritu! Ondo pasa eguna eta segi holako alaixa izaten. Matxo handi bat zure lagunaren partez



MATTIN eta XABI

Zorionak mutilak! Mattin muxu erraldoi bat zeure lehenengoko urtebetetzian eta beste 38 handi zuretzako ere Xabi! Maitxe zaitxuztegu!



LAIA

Gure poxpoliñai, etxeko guztien partez!



AINHIZE eta NORA

Zoixonak geure sorginei!! Segi horrela, gure bizitza magiaz betetzen. Matxe-matxe infinito.



ENEKO

Zorionak osaba! Maren eta Xugarren partez matxo haundi bat!



NARE

ZORIONAK NARE!! Uztailak 24an 9 urte!!! ondo ondo pasau! Matxe-matxe



LAGUNA

Zorionak lagun!




Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatía

Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

PAUSO

PODOLOGIA KLINIKA

943 01 49 05 - 747 43 48 52
Astillero Kalea 2 behe, Deba



Orgazki Zaharrak



MERTZEDARIOETAKO IKASLE-TALDEA 1969-1970 IKASTURTEAN

Miel Angel Eizagirre, Jose Manuel Zubizarreta, Santiago Lezertua, Migelito Eizagirre, Juan Martin Urreisti, Guillermo Davila, Eduardo Yurrita, Niko Flores, Frai Pedro

Goio Arandia, Eugenio Davila, Luziano Hernandez «Kanario», Alberto Lejardi, Bartolo Belaustegi, Pedro Imaldi, Inaki Belaus-
tegi «Moxka», Iñigo Mendibe, Juan Francisco Egurbide, Juan Lucas Ageitos, Jose Luis Uranga «Marrukax», Santi Ansola eta
Alex Egurbide.



Urkiza-Alberdi sendia, 1956 urtean

Candido Urkiza eta Salvadora Alberdi, Gillermo, Mari Loli, Gema Urkiza,
Koldo eta Mari Paz seme-alabekin eta Salvadora Iturrino amonarekin

UZTAILA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala	larunbata	igandea
20 Zalduegi	21 Zalduegi	22 Zalduegi	23 Zalduegi	24 Burgoa	25 Burgoa (2)	26 Burgoa
27 Lasuen Elez	28 Lasuen Elez	29 Lasuen Elez	30 Lasuen Elez	31 Lon Apraiz		

ABUZTUA

3 Burgoa	4 Burgoa	5 Burgoa	6 Burgoa	7 Zalduegi	8 Zalduegi (1)	9 Zalduegi
10 Apraiz	11 Apraiz	12 Apraiz	13 Apraiz	14 Lasuen Elez	15 Lasuen Elez	16 Lasuen Elez
17 Zalduegi	18 Zalduegi	19 Zalduegi	20 Zalduegi	21 Burgoa	22 Burgoa (2)	23 Burgoa
24 Lasuen Elez	25 Lasuen Elez	26 Lasuen Elez	27 Lasuen Elez	28 Lon Apraiz	29 Lon Apraiz	30 Lon Apraiz

IRAILA

31 Burgoa	1 Burgoa	2 Burgoa	3 Burgoa	4 Zalduegi	5 Zalduegi	6 Zalduegi
7 Lon Apraiz	8 Lon Apraiz	9 Lon Apraiz	10 Lon Apraiz	11 Lasuen Elez	12 Lasuen Elez	13 Lasuen Ele
14 Zalduegi	15 Zalduegi	16 Zalduegi	17 Zalduegi	18 Burgoa	19 Burgoa	20 Burgoa

EGUNEKO GUARDIA ZERBITZUA 09:00 - 22:00

Larunbat goizetan zabalik 09:30-13:00
Igande goizetan zabalik 11:00-13:00

Lasuen-Elezgarai.....626 611 392
Lon Apraiz.....630 055 097
Hiart Burgoa (Deba)667 338 890
Amaia Zalduegi (Deba)... .669 262 201

GAUEKO GUARDIA ZERBITZUA 22:00 - 09:00

ELORTZA ELORTZA....943 20 61 00
Juan Gisasola kalea 18, 20600 Eibar

UZTAILA

18 20:00 Goiko plazan	Gure Ametsa dantza taldea
19 11:00 Portuan	Merkatu Txikia atun errearekin
21etik 25era	MALEN JAIXAK
28 Konde kalea 18	Emakumeentzako* Aholkularitza Juridikoa

ABUZTUA

1 22:30 Txurruka plaza	"Verdiniren distira" Verdini Dantza Konpainia
5 22:00 ZABIEL	Zinea kalean: Kayara, Inka gerraria
8 22:30 Txurruka plaza	Kontzertua: Esti Markez
12 22:00 ZABIEL	Zinea kalean: Lilo & Stich
19 22:00 ZABIEL	Zinea kalean: Minecraft
22 11:00	MERKATU TXIKIA
28 19:00 Komenduan	Cor Badaveus abesbatza (Catalunya)

IRAILA

12 11:00	Merkatu Txikia atun errearekin
13tik 16ra	GALBAIXO JAIXAK

BISITA GIDATUAK

- Zazpi hondartzak • Mutriku marinela • Olatu planta •
- Nautilus, Flyscheko fosilak • Arrietakua jauregia •

Turismo bulegoan edo www.geoparkea.eus helbidean

ODOLA EMATEA 2026

abuztuak 7

• urriak 16 • abenduak 18 •

17:00etatik 20:30ak arte anbulatorioan

Gipuzkoako Odol Emaileak

MENDI-IRTEERAK 2026

Irailak 13	SAIOA (Burdin Kurutz MT)
Urriak 18	IOAR (Aurrera MT)
Azaroak 15	ARALAR (Burdin Kurutz MT)
Abenduak 13	MARKINA



aldizkaria@kalaputxi.eus
whatsapp 635748393
iraileko aldizkarian
argitaratzeko
irailaren 11rako
bidali zuen mezuak

Camping Galdona

JATETXE ETA ERRETEGIA
Galdona Baserria

eguneko menua
daukagu

Tel. 943 60 35 09 MUTRIKU

Gotzon arrandegia

produktu fresko eta kalitatezkoak

Gotzón Eizagirre
Felix Txurruka, 2 - Tfnoak: 943 60 46 02 / 943 60 36 59



VITORIAOPTIKA

O P T I K A - A U D I F O N O A K

**AUDIOPROTESISTA
EGUNERO ZENTROAN
AUDIOMETRIA DOAN**

**AUDIFONOAK BERRITZEKO
GURE PROMOZIOEI
BURUZ GALDETU**

IPARRETIK ERRIBERARA

30 URTE GUZTIRA!
Eskerrik Askok!



ERRIBERA 16 • 48700 ONDARROA (BIZKAIA)

☎ 94 613 41 38 ✉ optikavitoriaondarroa@gmail.com

■ GOI-MAILA:

- Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea
- Administrazioa eta finantzak
- Web aplikazioen garapena
- Automatizazioa eta robotika industrialak
- Mekatronika industrialak
- Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa

■ ERDI-MAILA:

- Mantentze-lan elektromekanikoa
- Beroa sortzeko instalazioak
- Instalazio elektriko eta automatikoetako teknikaria
- Soldadura eta galdaragintza
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta

LANBIDE HEZIKETA



Matrikulazioa zabalik!



Plaza mugatuak. EMAN IZENAI

94 616 90 02 info@leartik.eus



MARKINA-XEMEIN

leartik • eus



2026 Mañen jaiak

mutriku Uztailaren
21etik 25era

